

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Hasierako onespena ematea Salcedoko Ekiola parke fotovoltaikoko lurzoru urbanizaezineko plan bereziari

Udal honetako alkatearen 2023ko uztailaren 28ko 136 zenbakiko Ebazpenaren bidez, hasierako onspena eman zitzaion Salcedoko Ekiola parke fotovoltaikoko lurzoru urbanizaezineko plan bereziari, Añanako Ekiola S. Koop. sozietateak sustatua.

Plan berezi hori jendaurrean jarriko da, iragarki hau ALHAOn, lurraldean gehien saltzen den egunkarietako batean eta Lantarongo Udalean argitaratuz, eta, iragarki hau azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hogeitau egun balioduneko epean, interesa duen edonork udal bulegoetan aztertu ahal izango du plana eta egoki irizten dituen alegazioak aurkeztu; hori guztia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95.2 eta 97. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Komunioi, 2023ko uztailaren 28a

Alkatea

JOSÉ LUIS SALVIDEA MARTINEZ